

## KANALAK

Ikasle bezeroei gure proiektua ailegarazteko asmoz, bezeroekiko komunikazioa errazteko, institutoetan eta interneten bidez iragarkiak argitaratuko ditugu, gure webgunea eskaintzen dituen zerbitzuak eta haien abantailak aurkeztuz. Gaur egun, ikasle askok sare sozialak erabiltzen dituzte egunean ordu askoz, beraz sare sozialen bidez bezeroei gure webgunea helarazteko eduki-sortzaileekin kontaktatu ahal dugu publizitate kanpainak sortuz.

Produktu edo zerbitzuen banaketan eta salmentan, eskainitako zerbitzua produktu fisikoa ez denez interneten bidez webgunea erabiliz eskainiko dugu gure zerbitzua. Leku fisiko batean eskainitako logela edo etxebizitzaren alokairuen iragarkiak eskainiko bagenitu, lokalaren alokairuak irabazien zati bat kenduko liguke, beraz leku fisikoaren beharra ez dago.

Gainera, ikusten badugu interneten bidezko erosketen bilakaeraren grafikoa azken 10 urteetan, hauteman ahal dugu bezeroen lehentasuna interneten bidezko erosketera bideratu dela.

